

OTO GOIEN / HUETO ARRIBA

— ARABA / ÁLAVA —

Otogoien Gasteiz udalerriari dagokion herria eta kontzejua da. Otobarrenetik oso hurbil dago, eta, biek batera, Donemiliaga Kukullari hiru burdin hesi ematen zizkieten, Alfoz de Divina izenekoaren barruan. Herria hiriburuaren ipar-mendebaldean dago, 14 km-ra, Badaia mendilerroaren hegoaldean, hegal erdian gutxi gorabehera. Mendilerro horrek mendi-sistema konplexua eratzen du, eta eraketa geologiko berezia du, lurpeko haitzulo ugari ditu eta. Lurpean haitzulo ugari daude katalogatuta, eta horien artean aipatzekoa da Los Goros kobazuloa. Leku horretan, gorpuzkiekin batera, aldi bisogitiko ostilamendu garrantzitsua aurkitu zuten. Aurkitutako objektuen artean, nabarmentzekoa da gerrikoaren burdinazko belarria, zilarrezko eta ko-

Hueto Arriba es un pueblo y concejo perteneciente al municipio de Vitoria-Gasteiz, muy próximo a su homónimo, Hueto Abajo, junto con el que entregaba tres rejas a San Millán de la Cogolla, dentro del alfoz de Divina. El pueblo está situado 14 km al noroeste del centro de la citada capital, a media ladera de la vertiente sur de la sierra de Badai. Esta sierra dibuja un complejo sistema montañoso que se distingue por su configuración geológica, favorable a la formación de cavidades subterráneas. Hay catalogadas un gran número en su subsuelo, destacando entre ellas la cueva de Los Goros. En esta cueva, y junto con restos humanos, se encontró un importante ajuar de carácter visigótico. Entre los objetos encontrados sobresale una

Herriaren ikuspegi orokorra / Vista general del pueblo



brezko ornamentazio damaskinatu aberatsarekin. Pieza horiek VII. mendekoak dira, eta, gaur egun, Arabako Arkeologia Museoan daude.

Iraganean *Oto*, *Oto de Suso*, *Hueto de Suso*, *Cueto*, *Ueto*, *Güeto Arriba* esan zitzaion. Gil lizentziatuaren hitzetan, leku hori *es de la misma vecindad de Hueto de Yuso y del mismo señorío*. Horrez gain, lizentziatuaren esanetan, bost apaiz onuradun zituen, eta horietako batek notario moduan jardun zuen berak egindako bisitan. Horrez gain, Santiago ermita aipatzen du, gaur egun ere zutik dagoena.

Martiodako jaunen lurra izan zen, eta Hurtado de Mendoza familiarena. Otobarrenek, alboko herriarekin batera, Los Huetos ermandadea osatu zuen, eta XIX. mendean udalerrri bihurtu zen. 1975ean, udalerrria eta Gasteiz anexionatu egin ziren.

hebilla de cinturón de hierro, con rica ornamentación damasquinada en plata y cobre. Datadas en el siglo VII, estas piezas se encuentran actualmente en el Museo de Arqueología de Álava.

En el pasado recibió los nombres de *Oto*, *Oto de Suso*, *Hueto de Suso*, *Cueto*, *Ueto*, *Güeto Arriba*, hasta llegar a su denominación actual. El licenciado Gil dice que dicho lugar *es de la misma vecindad de Hueto de Yuso y del mismo señorío* añadiendo que tenía cinco beneficiados, uno de los cuales hizo de notario en la visita que él ejecutaba. Cita, además, a la ermita de Santiago, que hoy subsiste.

Fue tierra de los señores de Martioda, de la Casa de los Hurtado de Mendoza, y formó, con la vecina localidad de Hueto Abajo / Oto Barren la hermandad de Los Huetos, que en el siglo XIX quedaría constituida en municipio. En 1975 el municipio de Los Huetos quedó anexionado al de Vitoria.

Natibitate eliza / Iglesia de la Natividad

ELIZA HAU EUSKAL Herriko tenplu erromanikoaren ohiko adibidea da. XIII. mendekoa da, eta trazadura ona du. Herriaren ekialdean dago, muino txiki batean. Elizak zenbait eraikuntza atxikita zituen, aurrietan daude (sakristia, apaizetxea eta aterpea), eta horien eraginez eraikina ezin zen behar den moduan ikusi. 1994 eta 2000. urteen bitartean egindako zenbait esku-hartzeri esker, gaur egun gehigarririk gabe ikus daiteke. Lehenengo trazadura erromanikoari dagokio, abside erdizirkularra eta nabearen lehenengo tarte biltzen dituena. Estiloak trantsizio-izaera duenez, tenpluaren oinetarako jarraipenak gotikoaren ukituak ditu.

Tenpluaren eta, zehatz esanda, absidearen trazadura neurritasunaren adibide ederra dira, leihoetan, inpostetan eta modiloietan ia-ia ez baitago apaindurarik. Hala ere, neurritasun hori gorabehera, tenpluaren neurrien edertasuna eta harmonia antzeman ditzakegu.

Kanpoaldetik abside erdizirkular ederra ikus daiteke, harlanduxkoz egindakoa, erdi-puntuko hiru leihaterekin. Leihate horiek hiru arkibolta eta ertz alakatuko arkugainera dute, janbek bezala. Bi inposta jarraitu eta lisok absidea modu horizontalean inguratu eta hiru gorputzetan artikulatzen dute.

Kontrahorma lauak markatutako bereizketarekin, burualdea altuera bereko tarte batean luzatzen da, hori ere harlanduxkoz egindakoa. Horretan, hegoaldeko horman, absidean deskribatutako leihateen antzekoa irekitzen da.

LA IGLESIA PARROQUIAL es un ejemplo típico de templo románico en el País Vasco. Del siglo XIII y de buena traza, se sitúa en el extremo oriental del pueblo, sobre una ligera elevación del terreno. La iglesia estaba afectada por la presencia de una serie de construcciones adosadas en estado ruinoso (sacristía, casa rural y albergue) que dificultaban mucho la correcta lectura del edificio. Distintas actuaciones llevadas a cabo entre los años 1994 y 2000 hacen que hoy se pueda contemplar libre de añadidos. Tiene una primera traza característica del románico, que reúne el ábside semicircular y el primer tramo de la nave. El carácter transitorio del estilo hace que la continuación del templo hacia los pies participe ya de los albores del gótico.

La traza del templo y, particularmente de su ábside, constituye un hermoso ejemplo de sobriedad por la ausencia total de decoración en las ventanas, las impostas y los modillones. Esta austeridad, sin embargo, no impide apreciar la belleza y armonía de sus proporciones.

Desde el exterior se contempla el bello ábside semicircular, de sillarejo, con tres ventanales de medio punto. Tienen tres arquivoltas y trasdós en arista biselada, lo mismo que las jambas. Dos impostas corridas y lisas circundan el ábside horizontalmente y lo articulan en tres cuerpos.

Con la separación marcada por un contrafuerte plano, la cabecera se prolonga en un tramo de su misma altura, también de sillarejo. En él, y en el muro sur, se abre un ventanal similar a los descritos en el ábside. Este vano

Bao hori ezkutatuta zegoen, sakristia kendu zuten arte. Sakristia hori hegoaldeko hormako espazio honetan atxikita zegoen.

Eraikinaren gainerako osagaiak harlangaitzez daude eginda, eta altuera handiagoa dute. Eraikuntzan aipatzekoa da harburu lisoak dituen hegala. Mendebaldeko hastialaren gainean, kanpai-horma bi gorputzek osatzen dute. Behekoa erromanikoa da, eta bi arku zorrotz ditu. Goikoa, txikiagoa, erdi-puntuko arkuarekin eta erremate triangeluararekin, XVII. mendekoa da.

XIII. mendeko portada aipatutako esku-hartzean egin dako elizpe baten azpian dago. Erdi-puntuko arku batek ertzean eta bi arkibolta bikoitzek osatzen dute. Barrukoa osatzen dute, zango erdiak eta akanto-hosto estilizatuek muturra aurrerantz iraulita dutela, eta kanpokoak baketoia eta bolak ditu hosto luzatuen gainean, eta muturra haiengana iraulita dute. Estibalizen ereduari jarraitzen dio: lau

se encontraba oculto hasta la aludida eliminación de la sacristía, que se emplazaba, adosada, en este espacio del muro sur.

El resto del edificio es de mampostería y mayor altura. Un tejazoz con canes lisos destaca en la construcción. Situada sobre el hastial de poniente, la espadaña se compone de dos cuerpos. El inferior es románico, con dos arcos apuntados. El superior, de menor proporción, con arco de medio punto y remate triangular, pertenece ya al siglo XVII.

La portada, del siglo XIII, se ubica bajo un pórtico realizado en la mencionada intervención. Está formada por un arco de medio punto en arista y dos arquivoltas dobles. La interior está compuesta de media caña y hojas de acanto estilizadas con la punta vuelta hacia el frente, mientras que la exterior consta de baquetón y bolas sobre hojas alargadas que vuelven su punta sobre ellas mismas. Sigue el modelo de Estíbaliz en los graciosos fustes decorados de

Absidea / Ábside



zutabeetako fuste apaindu barregarriak, zerrenda lau-ko saski itxurako apaindurekin, kanpokoak, eta hutsuneen artean kuadrifolio erretikulatuekin, barrukoak. Kapitela-
k zurtin estilizatuen txirikordaz, hosto horzdun handiz, ka-
ratula estilizatuz eta lorez apaintzen dira. Harroinak atza-
pardunak dira, apaindura makurrarekin.

Barrualdean, eraikinak nabe bakarra du, kanoi-erdiko ganga zorrotzarekin estalita, eta parpain-arkuek berei-
zitako hiru tarte ditu. Arku horiek ere zorrotzak dira eta
pilastretan oinarritzen dira. Absideak –labe-gangarekin–
eta lehenengo tarteak presbiterioa osatzen dute, eta azken
hori gainerako tenplua baino baxuagoa da. Garaipen-arkua
tolestuta dago eta zutaberdiak eta kapitela begetalak dituz-
ten pilastretan zurkaizten da. Garaipen-arku hori lokarri
koherentea da estiloen trantsizio horretan, hots, erro-
manikoaren eta gotikoaren artekoan.

Erretaula nagusiak –barrokkoa da– erdiko leihatea
ezkututzen du, baina alboak ikusten dira, eta erdi-puntu-
ko arku tolestuz daude osatuta.

Otogiengo tenpluak bataiarri zoragarria du, apain-
duraz estalia. Micaela Portillak XIII. mendekoa dela dio.
Bataiarri horretan, harmonia handiz, motibo erromanikoak
eta gotikoak batera ageri dira. Osagai bikaina dela esan
izan da, apaingarrien kalitateari zein kantitateari errepara-


sus cuatro columnas, con encestados de bandas planas, las
exteriores, y reticulado por cuadrifolios con botón entre
los huecos, las interiores. Los capiteles se decoran con
trenzado de tallos estilizados, grandes hojas dentadas, una
carátula estilizada y flores. Sus basas son de garras, con
decoración arqueada.

Ya en el interior, el edificio se articula en nave única
cubierta por bóveda de medio cañón apuntado y tres tra-
mos separados por arcos fajones, también apuntados, apo-
yados sobre pilastras. El ábside –con bóveda de horno– y el
primer tramo componen el presbiterio, siendo éste de me-
nor altura que el resto del templo. El arco triunfal, doblado
y apeado en pilastras con semicolumnas y capiteles vegeta-
les, actúa de coherente enlace en esa transición de estilos,
ya comentada, del románico a los albores del gótico.

El retablo mayor, barroco, oculta el ventanal central,
pero permite apreciar los laterales, compuestos por arcos
de medio punto doblados.

Atesora el templo de Hueto Arriba una magnífica pila
bautismal, completamente cubierta de decoración, que
Micaela Portilla data en el siglo XIII, en la que aparecen
conjugados, armoniosamente, motivos románicos y góti-
cos. Este ejemplar ha sido calificado de excepcional, tanto
por la calidad como por la cantidad de la ornamentación


Oinplanoa / Planta





Hegoaldeko altxaera / Alzado sur

Ebaketa luzetara / Sección longitudinal





Portada / Portada



Barrualdeko kapitela

Capitel del interior



Bataiarria

Pila bautismal

tuz. López de Ocárizen esanetan, euskal bataiarrietan aurki dezakegun ikonografia aberatsena eta konplexuena du.

Basamentu molduratu sinplea du, eta, horren gainean, oin tronkokoniko irregularra dago, mahatsondo-orriz eta fruituz apainduta. Ontzia erdi obala da, eta goiko aldean luzapen zilindrikoa du. Apaindura hiru maila edo zerrendatan dago zatituta, eta irudi gehienak kasuan kasuko gelaxketan daude inskribatuta. Goiko mailan ikonografia erlijiosoa ageri da, eta, beheko bietan, askotariko izaerako ikurrak eta tipologiak dira nagusi.

Goiko zerrendak arku trilobulatuek osatutako arkuteria du, eta arku horiek erdi-puntuko beste batzuetan inskribatuta daude. Horien azpian, apostoluak, profetak, elizgizonak, apaiz meza-emailea, fraide frantziskotarrak eta Deikundea irudikatzen dituzten hogeita lau irudi daude. Bitarteko zerrendan lore motiboak eta motibo figuratiboak daude, esaterako *Agnus Dei*, bi lehoi erpekari hiru dorreko gotorleku baten alboan, bi arrano aurrez aurre atzaparrekin untziei eusten, eta hortz handiko munstro hegoduna ageri dira. Hirugarren zerrendak bederatzi lauki ditu, motiboak bereizten dituzten banda bertikalen bidez. Bigarren zerrendako zenbait irudikapen errepikatzen dira: makalaren hostoa, lirio-lorea, gaztelua lehoi erpekarien artean, idibegi trilobulatua, makalaren hostoa, lirio-lorea, gaztelua lehoien artean, hegaztia eta lirio-lorea.

Testua eta argazkiak: MPGH - Planoak: LGT

que la envuelve. Así, López de Ocáriz indica que posee la iconografía más rica y más compleja que podemos hallar en las pilas bautismales vascas.

Consta de un simple basamento moldurado sobre el que se sitúa el pie, troncocónico irregular, decorado con hojas y frutos de vid. En la taza, semioval con prolongación superior cilíndrica, la decoración aparece dividida en tres niveles o franjas, y la mayoría de las figuras se hallan inscritas en sus respectivos cubículos. Mientras que en el nivel superior aparece una iconografía específicamente religiosa, en los dos inferiores predominan signos y tipologías de carácter variado.

La franja superior consta de arquería creada por arcos trilobulados, inscritos en otros de medio punto, bajo los cuales se cobijan veinticuatro figuras que representan apóstoles, profetas, clérigos tonsurados, un sacerdote oficiante, frailes franciscanos y la Anunciación. En la franja intermedia se disponen diversos motivos florales y figurativos, como el *Agnus Dei*, dos leones rampantes flanqueando una fortaleza de tres torres, dos águilas afrontadas que sujetan con sus respectivas garras sendos conejos, y un monstruo alado con grandes dientes. La tercera franja va distribuida en nueve casilleros, por bandas verticales que separan los motivos. Se repiten varias representaciones de la segunda: panela, flor de lis, castillo entre leones rampantes, óculo trilobulado, panela, flor de lis, castillo entre leones, ave y flor de lis.

Texto y fotos: MPGH - Planos: LGT

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, pp. 65-73, 120; CASTRO, C. de, 1915, pp. 162-163, fig. 64; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, p. 86; LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 352-357; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 109; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997a, II, pp. 782-783; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 61-62, fig. 19-20; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997c, I, pp. 204-205; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, p. 53; LÓPEZ DEL VALLADO, F., 1921b, pp. 862-863; PLAZAOLA ARTOLA, J., 2002b, p. 158; PORTILLA VITORIA, M. J., 1968, p. 70; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 454-455, fig. 650-656; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 59, 64-65; SÁENZ RODRÍGUEZ, M., 2004, p. 228.